

# PRENTSA OHARRA: JOXE IRIARTE BERTSOPAPER LEHIAKETA 2008

**Antolatzailea.** Altsasuko Kima euskara taldea.

**Laguntzaileak.** Sakanako Mankomunitatea, Altsasuko Udala eta Nafarroako Bertsozale elkarteak.

**Helburuak:** Laugarren edizio honetan hasierako helburuak izanen dira indarrean: Altsasun euskara komunikazio tresna ohikoa bihurtzeko bidean hizkuntza trebatzeko baliagarria delako bertso paper lehiaketa, batetik, eta, bestetik, Altsasuko bertsolari bat ezagutarazi nahi duelako Kimak.

**Sailak.** Lehiaketak bi sail izanen ditu: ikasleen saila batetik eta helduen saila bestetik. Lehendabiziko sailean parte hartu dezakete Altsasuko eta, oro har, Sakanako ikastetxeetan ari diren ikasleek. Helduen sailean parte hartzeko adinez nagusia izatea ezinbestekoa da, eta ez da beharrezkoa sakandarra izatea.

**Ikasleen saila.** Sail horretan honako kategoria hauek bereiziko dira:

b) LHko 5. eta 6. mailako ikasleena: 2 bertso edo 4 koplak.

c) DBHko 1. eta 2. mailako ikasleena: 2 bertso eta 3 bertso artean.

d) DBHko 3. eta 4. mailak, Batxilergoak, eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena: 3 bertso.

**Helduen saila.** Gutxienez 8 bertso idatzi beharko dira eta gehienez 12.

**Lanak aurkezteko epea:** Lanak aurkezteko epea 2008ko martxoaren 3an bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Ikasleen sailari dagokionez, lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu behar dituzte ikasleen izenean. Lanak Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, honako helbide honetan:

**Sakanako Mankomunitatea**

**Euskara Zerbitzua**

**Uriz 38**

**31830 Lakuntza**

**Telefonoak: 948 464840/948 46 48 67**

**Lanak aurkezteko modua.** Lan guztiak goizenez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira, izen-abizenak, helbidea, telefonoa, nortasun agiriaren zenbakia eta, ikasleen kasuan, ikastetxea maila eta adina orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi

beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen izen goitia eta saila eta, ikasleen kasuan, kategoria ere adierazi beharko da.

**Baldintzak.**

- a) Lanek orijinalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izan behar dute.
- b) Ikasleen sailean, beste edozein erakundek urte berean antolatutako bertsopaper lehiaketetara aurkeztutako lanak onartuko dira.
- b) Gaia, doinua eta neurria libreak izango dira.
- c) Bertsoak paperean (ordenagailuz idatzirik) eta euskarri elektronikoan (disketean) aurkeztuko dira.
- d) Lanak bakarkakoak izanen dira.

**Sariak.** Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. Guztira zortzi sari izanen dira. Hona:

<b>Ikasleak</b>	<b>Saria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	<b>1. saria</b>	<b>50 €</b>
LHko 5. eta 6. mailetako ikasleena	<b>2. saria</b>	<b>40 €</b>
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena.	<b>1. saria</b>	<b>60 €</b>
DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleena.	<b>2. saria</b>	<b>50 €</b>
DBHko 3. eta 4. mailak, Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena.	<b>1.saria</b>	<b>70 €</b>
DBHko 3. eta 4. mailak, Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleena.	<b>2. saria</b>	<b>60 €</b>
<b>Helduak</b>	<b>1.saria</b>	<b>150 €</b>
Helduak	<b>2. saria</b>	<b>100 €</b>

**Sari banaketa.** Sari banaketa maiatzean egingen da ekitaldi publiko batean.

**Argitalpena.** Altsasuko Kima euskara taldeak eta Sakanako Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango dute, betiere egilearen izena adieraziz.

**Epaimahaia.** Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko eta Kima euskara taldeko arduradun batek izendatuko dituzte eta bertsolaritzan eta euskal kulturaren nor diren hiru kidek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da. Dena den, aurkeztutako lanek gutxienezko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira.